- “Pertsona kontsumitzaileen eta erabiltzaileen Estatutuaren II. Tituluko VII. Kapitulua (pertsona kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak) garatzeko Dekretu Proiektuari” buruz irizpen-aurreproiektu berriaren edukia, aurreko bileraren ostean idatzitakoa, eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da Osoko Bilkurak lantzeko.

2008ko otsailaren 12a

- Bilera hau eskusiboki “Gizarte Zerbitzuen Legearen Aurreproiektua” azaltzeko Fernando Consuegra Gizarte Gaietarako Sailburuordearen agerraldirako izan ez.

2008ko otsailaren 22a

- “Gizarte Zerbitzuen Legearen Aurreproiektuari” buruzko irizpen-aurreproiektuaren eztabaida. Bileran onartutako gaietatik abiatuta, irizpen-proiektu berria idaztea erabaki da.
- Irizpen-aurreproiektu berria eztabaidatzeko otsailaren 29an bilera berria egitea erabaki da.

2008ko otsailaren 29a

- “Gizarte Zerbitzuen Legearen Aurreproiektuari buruzko Irizpen Proiektuaren” eztabaidarekin jarraitzea. Aurreproiektua eztabaidatu baino lehen, ELA eta LABren bi ekarpen entregatu dira bileran lantzeko. Idazkari Teknikariak egin beharreko Irizpen Proiektua adostasunez idazteko akordiora iritsi da. Ondoren, Batzordeko kide guztiei bidaliko zaie testu osoari buruz akordioa lortzeko. Posta elektronikoz bidaliko da. Akordiora 2008ko martxoan iritsi zen.

2008ko apirilaren 25a

- “Euskal Herriko Meteorologia eta Klimatologiaren Legearen Aurreproiektuari” buruzko irizpen-proiektua onartu da.

2008ko maiatzaren 7a

- “Lan-merkatuaren azterketarako laguntzak arautzeari buruzko Agindu Proiektuaren irizpen-aurreproiektuari” dagokion eztabaida. Eztabaidatu ostean, adostasunera iritsi da bigarren irizpen-aurreproiektua idazteko eta saioan onartutako gogoetak erantsiko dira. Idazkari Teknikoak Aurreproiektu berria idatziko du eta kide guztiei posta elektronikoz bidaliko zaie.
- Bidali ondoren eta kide guztiek Irizpen Proiektuari buruz xede horrez emandako epean iritzia azaldu ostean, onartutzat jo da.

2008ko ekainaren 16a

- Hurrengoei buruz irizpen-proiektuak onartu dira:
 - > “12/1998 Legea, maiatzaren 22koa, Gizarte Baztertearen kontrakoa, eta 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Gutunari buruzkoa, aldatzen duen aurreproiektua”.
 - > “Gizarteratzeko Enpresen kalifikazioa arautu, prozedura zehaztu eta Gizarteratzeko Enpresen Erregistroa arautzen duen dekretu-proiektua”.

2008ko ekainaren 20a

- “Etxebizitza Duina izateko Herritarren Eskubidea Bermatzeari buruzko Lege Aurreproiektuaren” irizpen-aurreproiektuari buruz eztabaidatzea. Irizpena egiteko adostasunik ez dagoela ondorioztatu da.

2008ko irailaren 19a

- “Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizartean Sartzeko Legearen Proiektuari” buruzko txostena egitea bidezkoa al den eztabaidatzea. Eztabaida hori planteatzen da

Gobernu Kontseiluak jada aipatu legearen proiektua onartu eta Legebiltzarrera bidali baitu. Gaia aztertu ondoren, Legebiltzarrera bidalitako Legearen Proiektuari buruz txostena egitea erabaki da. Era berean, txostena egiten bada, Lege Proiektuaren egile den Gobernuko Sailari, Legebiltzarrari eta alderdi politikoei bidaltzea erabaki da.

- Ondoren, idatzitako Txostenaren Aurreproiektua eztabaidatzeari ekin zaio. Bileran onartutako gogoetak jaso ostean, Aurreproiektuaren testuari buruz adostasuna lortu da. Idazkari Teknikoak idazten duenean kide guztiei bidaliko zaie posta elektronikoz formalki onartutzat jotzeko, epe zehatzean kontrako arrazoirik ez badago. Azkenean, irizpen-proiektua onartu egin zen, telefonoz edo posta elektronikoz aipatu epean hainbat gogoeta adostu ondoren.

2008ko azaroaren 12a

- “OSALAN Lanerako Segurtasun eta Osasunaren Euskal Erakundearen Egitura eta Funtzionamenduaren Araua onartzeari buruzko Dekretu Aurreproiektuaren” Txosten Proiektua onartu da.

Txosten Sozioekonomikoaren Batzordea

2008ko otsailaren 13a

- Txosten sozio-ekonomikoaren hurrengo edizioaren edukia eta egitura onartu da, baita lan-egutegia ere.

2008ko ekainaren 18a

- 2007ko Txosten Sozio-ekonomikoaren lanei ekin zaie. Egindako zirriborroak eta kideek egindako ekarpenak aztertu dira.
- Txostena argitaratzeari dagokionez, paper eta tinta distiratuarekin inprimakia egiten denez, irakurketa zailagoa dela ohartarazi da, beraz, edizio honetan paper mateak eta distirarik gabeko tintarekin egindako laginak aztertuko dira.

2008ko uztailaren 16a

- Batzordearen lanekin jarraitzea: landu beharreko kapituluak buruz eztabaidatu eta erabakiak hartu dira.

2008ko irailaren 11

- Lanekin jarraitzea: adostasuna dagoen txostenaren gorputz-kapituluak ixten joatea erabaki da.

2008ko irailaren 24a

- Lanekin jarraitzea: lehenik eta behin, 2007ko TSEren gorputzari buruzko alderdiak landu dira, ixteke baitaude; ondoren, laburpenaren eta gogoeten kapituluarekin jarraitu da.
- Eztabaidatu eta erabaki egokiak hartu ondoren, Txostena onartu da eta Osoko Bilkuran lantzeke gelditu da.

GARRAIOAREN ARLOAN AKITANIAREKIN LANKIDETZAN JARDUTEKO LAN-TALDEAK EGINDAKO SAIOAK (2008)

Turismoari buruzko lana amaituta, Euskadi eta Akitaniaren artean garraioaren arloan oztopoak aztertzeke ikerketari ekin zaio. Garatzeko Euskadiko EGABren lan-taldeak 2008an bost bilera egin ditu; horietan bilera bateratuak prestatu dira.

Bilbo, 2008ko apirilaren 2a

Akitaniako EEGABrekin bilera bateratua egiteko prestaketa-bilera izan zuen taldeak. Bilera bateratua Pauen egin zen apirilaren 9an eta 10ean. Akitaniaren aldetik jasotako programa-proposamena aztertu zen eta zegozkion entzunaldiak egin ziren.

Ondoren, bilera horretan Akitaniako EGABrekin eztabaidatu beharreko lan-dokumentua aztertu zen eta hori buruz egindako balorazioak adostu ziren. Lan-programarekin aurrera egiteko jarraitu behar diren urratsei buruz jarraibideak zehaztu ziren.

Bilbo, 2008ko apirilaren 18a

Bileraren helburua Akitaniako EEGABrekin Pauen apirilaren 10ean egindako bilera bateratuaren balantzea egitea izan zen. Halaber, lanak garatzeko hurrengo hilabeteetan jarraitu beharreko urratsak definitu ziren. Bileraren balorazioa bidali ostean, garraio-datuen eboluzioaren ikuspuntutik aurrera egitearen beharra aipatu zen. Halaber, hurbiltasun-garraioari buruzko datuak zabaldu behar dira horiei dagokien kapitulua amaitzeko.

Bilbon hurrengo bilera bateratuan lantzeko entzunaldien gaiak zirriboratu ziren.

Bilbo, 2008ko uztailaren 3a

Lan-saioan Alejandro Naya jauna, Transportes PESA Ustiapen Zuzendaria, izan zen. Autobusez egindako bidaiarien garraio mugakide erregulararen problematikaren berri eman zuen Transportes PESAREN esperientziaren bidez Bilbo eta Baiona bitarteko ibilbidearen emakida ustiatzeko orduan. Era berean, zerbitzu horri bultzada emateko ekimenak aipatu zituen.

Bileran uztailaren 7an eta 8an Akitaniako EEGABrekin egin beharreko bilera bateratua prestatu zen eta hurrengo topaketa bidaiarien garraioaren hurbiltasun-fluxuetan oinarritzea erabaki zen. Gaiari buruz zenbait entzunaldi egin eta hausnarketa eta ondorioen saioa egin nahi ziren.

Azkenik, garraio-fluxuen eboluzio-datuei buruz bilketa eta hausnarketa aurrera zihoan. Horrek epe laburrean eta ertainean diagnostiko partekatua egitea ahalbidetuko du.

Bilbo, 2008ko urriaren 28a

Bileraren helburua Akitaniako EEGABrekin Baionan azaroaren 20 eta 21ean egin behar zen bilera batera prestatzea izan zen. Zehatz-mehatz esanda, bidaiarien hurbiltasun-garraioa hobetzeko proposamenak eta gomendioak formulatu ziren datu ugariak eta entzunaldietan jasotako esperientziei eutsiz.

Hausnarketa- eta eztabaida-saio bizia izan ondoren, ondorioen dokumentua sortu zen hurrengo bilera bateratuan Akitaniako ordezkariak planteatzeko.

Bilbo, 2008ko azaroaren 17a

Saioaren lanak Akitaniaren EEGABrekin Baionan azaroaren 20 eta 21ean egin beharreko hurrengo bilera bateratua prestatzera bideratu ziren. Bileraren gai-zerrenda aztertu eta horri ikus onetsia emateaz gain, 1990-2006 eboluzioaren ikuspuntuan fluxu-datu eskuragarrien ondorioz sortutako joerei buruz eztabaidatu zen eta epe laburrean nahiz ertainean joeren



RTAren
asanblada.
Rennes, Frantzia

diagnostikoari buruz adostasunera iritsi zen. Tranpa energetikoa, garrantzia, inpaktuak eta kronologia, epe luzean diagnostikoa egiteko ezezagun gehiegi dira.





II. Kapitulu

BATZORDEAREN LEGEAN
AURREZ IKUSITAKO FUNTZIOAK
BETETZEA



II.

BATZORDEAREN LEGEAN AURREZ IKUSITAKO FUNTZIOAK BETETZEA

Indarreko legeak aurrez ikusitakoarekin bat, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2008. urtean sei irizpen eta txosten bat egin zituen kontsultatutako gaiari buruz. Era berean, Euskadiko EGABk Gobernuari eta Euskal Legebiltzarrari Urteko Txostena aurkeztu zion EAEko ekonomia- eta gizarte-egoerari buruz gogoetak azaltzeko. Halaber, lan-batzordean ekimen propioko ikerketa bat onartu zuen eta Osoko Bilkurak onartzeke gelditu zen. Hori 2008. urtearen hasieran gertatu zen. “EGABren eztabaiden” jarduera-lerroaren esparruan eztabaida bat antolatatu zen. Atal honek Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean bere funtzioak betetzeko xedez egindako lanen laburpena eskaintzen du.

1. BATZORDEAK EGINDAKO IRIZPENEN GAIAK

IRIZPENAK:

Euskadiko Portuen Lege Aurreproiektuari buruzko 1/2008 Irizpena

Idazkari Teknikoa: Arantza López de Munain.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2007ko abuztuaren 1a.

Batzordea: Garapen Ekonomikoaren Lan Batzordea.

Bilerak: Batzordeak bi bilera egin zituen 2007ko azaroaren 6an eta 13an.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren

Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2007ko abenduaren 14an egin zuen eta Irizpen Proiektua ez zen bozkatu. 2008ko otsailaren 1eko Osoko Bilkuran lantzeko aurkeztu ondoren, bozkatu eta egin zen.

Pertsona kontsumitzaileen eta erabiltzaileen Estatutuaren II. Tituluko VII. Kapituluak (pertsonekin kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza- eskubideak) garatzeko Dekretu Proiektuari buruzko 2/2008 Irizpena.

Idazkari Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Bilerak: 2007ko irailaren 28an eta 2008ko urtarrilaren 25 eta 28an.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2008ko otsailaren 1ean egin zuen eta Irizpena aho batez onartu da.

EAEko Gizarte Zerbitzuei Lege Aurreproiektuari buruzko 3/2008 Irizpena

Idazkari Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Bilerak: 2008ko otsailaren 12, 22 eta 29an eta martxoaren 6an. Martxoaren 12an Batzordean Gizarte Gaietako Sailburuordea, Fernando Consuegra jauna, izan zen ekimen legegilerak aurkezteko.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2008ko martxoaren 26an egin du eta irizpena gehiengoz onartu da.

Turismoaren Antolaketaren Legeari dagokion Aldaketa Legareen Proiektuari buruzko 4/08 Irizpena

Idazkari Teknikoa: Arantza López de Munain.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2008ko urtarrilaren 16a.

Batzordea: Garapen Ekonomikoaren Batzordea.

Bilera: Batzordeak bilera 2008ko martxoaren 10ean egin zuen.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2008ko martxoaren 26an egin du eta aho batez erabaki da Irizpena egitea.

Euskadiko Meteorologia eta Klimatologiaren Lege Aurreproiektuari buruzko 5/2008 Irizpena

Idazkari Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Bilera: 2008ko apirilaren 25ean.

Emaitza: Zerbitzu Teknikoek proposatutako Irizpen Aurreproiektutik abiatuta, Irizpen Proiektua egin da eta EGABren Osoko Bilkurak 2008ko ekainaren 11ko saioan aztertzeko aurkeztu da. Aho batez onartu da.

Lan-merkatuaren azterketarako laguntzak arautzen dituen Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuaren Aginduari buruzko 6/08 IRIZPENA

Idazkari Teknikoa: Leire Ozerin

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2008ko apirilaren 9a.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Bilera: 2008ko maiatzaren 7an.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura egin du 2008ko ekainaren 11n eta gehiengoz onartu da Irizpena egitea.

Eraikuntzaren sektorean Enpresa Bermatuen Erregistroa sortu eta arautzeko Dekretu Proiektuari buruzko 7/08 Irizpena

Idazkari Teknikoa: Arantza López de Munain.

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2008ko apirilaren 23a.

Batzordea: Garapen Ekonomikoaren Batzordea.

Bilera: Batzordeak 2008ko maiatzaren 29an egin zuen bilera.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk 2008ko ekainaren 11n egin du Osoko Bilkura eta gehiengoz onartu du Irizpena egitea.

Euskadiko Lan Autonomoen Elkartetako Erregistro Berezia sortu eta arautzeko Dekretu Proiektuari buruzko 8/08 Irizpena

Idazkari Teknikoa: Arantza López de Munain

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2008ko maiatzaren 9a.

Batzordea: Garapen Ekonomikoaren Batzordea.

Bilera: Batzordeak bilera 2008ko ekainaren 5ean egin zuen.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2008ko uztailaren 29an egin du eta Irizpena egitea aho batez onartu du.

Gizarteak Baztertzearen kontrako Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko Legea aldatzeko Lege Aurreproiektuari buruzko 9/2008 Irizpena

Idazkari Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Bilera: 2008ko ekainaren 13an.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu

da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2008ko uztailaren 29an egin du eta Irizpena aho batez onartu du.

Gizarteratzeko enpresen sailkapena arautu, prozedura zehaztu eta gizarteratzeko enpresen erregistroa arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzko 10/2008 Irizpena

Idazkari Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Bilera: 2008ko ekainaren 13a.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2008ko uztailaren 29an egin du eta Irizpena aho batez onartu da.

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra aldatzen duen Lege Aurreproiektuari buruzko 11/08 Irizpena

Idazkari Teknikoa: Arantza López de Munain

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2008ko maiatzaren 13a.

Batzordea: Garapen Ekonomikoaren Lan Batzordea.

Bilera: Batzordeak bilera 2008ko irailaren 26an egin zuen.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2008ko urriaren 22an egin du eta aho batez erabaki du Irizpena egitea.

Osalan Lanerako Segurtasun eta Osasunaren Euskal Erakundearen egitura eta funtzionamenduren Araudia onartzeko Dekretu Proiektuari buruzko 12/2008 Irizpena

Idazkari Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Bilera: 2008ko azaroaren 12an.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura egin du 2008ko azaroaren 24an eta aho batez onartu du Irizpena.

TXOSTENAK:

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizartean Sartzeko Lege Proiektuari buruzko 1/2008 Txostena

Idazkari Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Gobernu Kontseilua **Lege Proiektua onartuta** eta Legebiltzarrari bidalita, Batzordeak horri buruz Txostena egiteko lanekin aurrera egitea erabaki du.

Bilera: 2008ko irailaren 19an.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Txosten Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Txosten Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2008ko urriaren 22an egin du eta aho batez onartu du Txostena.

Nekazaritza eta Elikadura Politikaren Lege Proiektuari buruzko 2/2008 Txostena

Idazkari Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Garapen Ekonomikoaren Batzordea.

Gobernu Kontseilua **Lege Proiektua onartuta** eta Legebiltzarrari bidalita, Batzordeak horri buruz Txostena egiteko lanekin aurrera egitea erabaki du.

Bilerak: 2008ko irailaren 26an eta urriaren 31n.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Txosten Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Txosten Proiektua egin da EGABren

Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2008ko azaroaren 24an egin du eta txostena aho batez onartu du.

Laguntza Farmazeutikoaren Antolaketa-ren Lege Aurreproiektuari buruzko 3/o8 Txostena

Idazkari Teknikoa: Leire Ozerin

Euskadiko EGABn sarrera-data: 2008ko urriaren 31.

Batzordea: Garapen Ekonomikoaren Batzordea.

Lege Proiektua azaroaren 18ko Gobernuaren Kontseiluan **onartu da**, baita Legebiltzarrera bidali ere, baina Batzordeak Lege Aurreproiektuari buruz txostena egiteko lanekin aurrera egitea erabaki du, Proiektua ez baitu.

Bilera: 2008ko azaroaren 28an.

Emaitza: Batzordeko kideek eskainitako proposamen eta iritzietatik abiatuta idatzitako Txosten Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Txosten Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura egin du 2008ko abenduaren 16an eta aho batez erabaki du txostena egitea.

2. TXOSTEN SOZIO-EKONOMIKOA

2007. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan Egoera Ekonomiko eta Sozialari buruzko Txostena gehiengoz onartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak 2008ko urriaren 22an egindako saioan. Hala, erakunde honi ematen zaion legezko agindua bete zen: EAEko egoera ekonomiko eta sozialari buruzko gogoetak azalduz urtero txostena egin eta Gobernuak eta Euskal Legebiltzarrak lantzeko aurkeztea.

Lan-batzordea honako kideek osatu zuten: Mikel Noval jn. (ELA), Raúl Arza jn. (UGT), Antxon Tomasena jn. (CCOO), Rafael Izquierdo jn. (LAB), Eduardo Aréchaga jn. (CONFEBASK), Jaime Fernández Alcedo jn. (CONFEBASK), Rafael Aranguren jn. (Aurrezki Kutxak eta Erakunde Finantzarioak), Miren Garmendia and. (Arrantza Erakundeak), Mikel de la Fuente jn. (UPV-EHU), Fco. Javier Sanz jn. (Kooperatiboak), Felicísimo Ayastuy jn., Antón Borja jn., Iñaki Barrenetxea jn., M^a Luz de la Cal and. eta Aitor Bengoetxea jn. (EGABko adituen taldeko kideak diren heinean)

2009ko Txosten
Sozioekono-
mikoaren
aurkezpena
komunikabideen
aurrean



eta Leire Ozerin and. Idazkari Tekniko bezala. Dokumentazio teknikoa Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga Euskadiko EGABren Ikerketa eta Proiektuen Arduradunek egin zuten eta Batzordeko erakundeen, elkarten eta adituen ekarpenak erantsi ziren.

2007ko Txostena egiteko, Batzordeak bost lan-bilera egin zituen 2008ko otsailaren 13an, ekainaren 18an, uztailaren 16an eta irailaren 11 eta 24an. Azkeneko datan aho batez onartu zen "2007ko EAEko Txosten Sozio-ekonomikoa".

Gure Autonomia Erkidegoko egoera ekonomiko eta sozialari buruz urtero Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egiten duen Txostenaren hamargarren edizioak errealitate ekonomiko eta sozialaren datu garrantzitsuenak aztertzen ditu eta Euskadiko EGAB osatzen duten eragile ekonomiko eta sozialen diagnostiko bateratua eskaintzen du.

2007. urtean EAEn Ekonomia eta Gizarte Egoerari buruzko Txostenak aurreko edizioetako edukien lerro orokorrak mantendu ditu.

“Laburpen eta Gogoeta Orokorrei” buruzko lehenengo atalaz gain, Txostenaren edukiak hurrengo bloke handitan multzokatzen dira:

KAPITULUA EAEN JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BITARTEKOAK

1. EAEn giza baliabideak:
 - Demografia eta inmigrazioa.
 - Hezkuntza eta hezkuntza-sustapena.
2. EAEn produkzio-egitura eta berrikuntza:
 - Produkzio-egitura.
 - I+G+b jarduerak eta IKT izenekoak.
3. EAEn natur ingurunearen egoera.
4. Produkzio-azpiegiturak.

EKONOMIA EAEN

1. Kanpoko ingurune ekonomikoa.
2. EAEn abagune ekonomikoa.
3. EAEn sektore publikoa.
4. Gizarte-ekonomia.
5. Lan-merkatua EAEn.
6. Prezioak, kostuak eta errentak.

BIZI-KALITATEA EAEN

1. Zenbait talde interesgarriren (gazteria eta 55 urtetik gorako pertsona adinduak) bizi-baldintzak.
2. Osasuna eta osasun-sistema.
3. Hirigintza eta etxebizitza.
4. Astialdia, kultura eta kontsumoa.
5. Pobrezia eta gizarte-baztertea.
6. EAEn jarduera judizialaren eboluzioa.

EAEN BABESA ETA GIZARTEAK BAZTERTZEA

1. Langabeziarekiko babesa.
2. Gizarte-segurantzaren prestazioak.
3. Pobreziaren eta gizarte-baztertearen kontrako neurriak.
4. EAEn gizarte-aurreikuspenaren sistema osagarriak.

GARAPENAREKIKO KOOPERAZIOA EAEN

JARDUERA LEGEGILEA EAEN 2008. URTEAN

3. EKIMEN PROPIOKO IKERKETAK

EGABren Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 1ean egindako saioan, 2007. urtean zehar egindako ikerketa onartu zuen: **“Garapen iraunkorra, politika publikoen erronka: EAEn ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-ikuspegiak integratuta, garapen iraunkorraren estrategiaren jarraibideak definitzeko konparaziozko ikerketa”**.

Arduradun teknikoa: Arantza Lopez de Munain Zulueta

Lanaren helburua gure ingurunean politika publikoak hartzen ari diren bidearen ikuspegia izatea da; ekonomia- eta gizarte-iraunkortasunaz gain, ingurumen-iraunkortasuna bilatzen dute, bai Europako Elkartean nazioaz gaindi, bai nazioan eta eskualdean alderatuta “praktika onei” dagokienez. Ildo horri jarraiki, ondorio egokiak atera daitezke eta EAEn ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-garapen iraunkorrari aurre egiteko Estrategia planteatu daiteke. Ikerketaren edukiaren eta analisiaren helburu nagusia Euskadiko EGABn bilduta dauden eragile ekonomiko



Euskadiko
EGABen
argitalpenak

eta sozialen aldetik proposamenak definitzea da ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-helburuak eta –konpromisoak integratuta planifikatzeko EAEko Garapen Iraunkorraren etorkizuneko Estrategian.

Aholkularitza kolaboratzaileak: LKS Consulting eta Wuppertal Institute for Climate, Environment and Energy.





III. Kapitulu

ERAKUNDE-JARDUERA



III.

ERAKUNDE-JARDUERA

Batzordearen ordezkariak zenbait ekitalditan, kongresutan, mintegitan eta mahaingurutan izan ziren, EAEn diharduten erakunde, enpresa, komunikabide eta elkarteek gonbitak luzatu ostean.

Era berean, EGABko teknikariek urtean zehar jardunaldi, mintegi, ikastaro edo eztabaida-gune interesgarritan parte hartu dute erakundearen jarduera garatzeko.

Bestelako erakunde homologoekin eskualdeen arteko kooperazioa eta Autonomia nahiz Europako eremuko beste Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin topaketak biziagotu egin ziren 2008. urtean.

Bakarrik jarduerarik esangarrienak azpimarratuko ditugu:

Erakunde-topaketak eta -agerraldiak

- **2008ko urtarrilaren 8a. Gasteiz**

Idazkari Nagusiak, Administrazio eta Zerbitzuen Arduradunarekin batera, bilera izan zuen Eusko Jaurilaritzako Ekonomia Sailburuordearekin, Manuel Urkijo jaunarekin, 2008. urterako Batzordearen Aurrekontua aurkezteko.

- **2008ko urtarrilaren 28a**

Batzordearen lehendakaria, Antxon Lafont, Luc Paboeufekin, Akitaniako EEGABren lehendakariarekin bildu da.

- **2008ko urtarrilaren 31. Bilbo**

Euskadiko EGABren lehendakaria Innobasqueren lehendakariarekin bildu da. Erakundearen aurkezpena.

- **2008ko otsailaren 5a. Bilbo**

Idazkari Nagusia, Javier Muñecas, Emakunderen 20. urteurrenaren ospakizunean egon da.

- **2008ko otsailaren 12a. Bilbo**

Gizarte Garapenaren Batzordean izan da Luis Fernando Consuegra jauna, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailburuordea; Gizarte Zerbitzuen Legearen Aurreproiektuari buruzko irizpena egiteko lanen esparruan egin da.

- **2008ko otsailaren 14a. Madril**

Lehendakariaren bilera Marcos Peñarekin, Espainiako EGABren lehendakariarekin.

- **2008ko otsailaren 15a. Bilbo**

Idazkari Nagusia Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburuaren, Nuria López de Guereñu andrearen "Merkataritza Ganberako ostiralak" esku-hartzean izan da. Gaia: "Euskadiko Y, Euskadiko garapen sozio-ekonomikorako bide saihestezina".

- **2008ko otsailaren 25a. Gasteiz**

Esther Larrañaga Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailburuari Lehendakariak eta Idazkari Nagusiak, Garapen Ekonomikoaren Batzordeko ordezkari batzuekin batera, "Garapen iraunkorra, politika publikoen erronka" Ekimen Propioko lkerketa entregatu diote.

- **2008ko martxoaren 11. Bilbo**

GAB Euskal Legebiltzarreko ordezkariak bisitatu du. Erakundea bisitatzen duten legebiltzarkideak Legebiltzarraren Lan eta Gizarte Ekintzaren Batzordean osatutako txostenaren kideak dira. Autonomia Erkidegoan gizarte- eta lan-organoak nola suspertu aztertu nahi dute. Bisitan zehar, legebiltzarkideak Lehendakariarekin, Idazkari Nagusiarekin eta EGABren talde guztietako batzordekideekin bildu dira.

- **2008ko martxoaren 14a. Irun**

Idazkari Nagusia FICOBAn izan da Gipuzkoako industriei eta zerbitzu-enpresei emandako XVI. sarian.

- **2008ko martxoaren 28a**

Lehendakariaren bilera Alain Even, Luc Paboeuf eta Pablo Cotorekin, hau da, RTA eta Akitaniako eta Kantabriako EGABren lehendakariekin, hurrenez hurren.

- **2008ko apirilaren 1a. Bartzelona**

Antxon Lafont lehendakariak Consell de Treball Economic i Social de Catalunya (CTESC) erakundeko lehendakaria, Mercé Sala andrea, bisitatu du.

- **2008ko apirilaren 9, 10 eta 11. Santiago**

Idazkari Nagusia EGAB autonomikoen lehendakari eta idazkari nagusien topaketa izan da Galizian.

- **2008ko apirilaren 17a. Donostia**

Elkargiren enpresa-topaketa: "Enpresa egungo ingurune ekonomiko finantzarioaren aurrean". Idazkari Nagusia izan da.

- **2008ko apirilaren 18a. Donostia**

Javier Muñecas, idazkari nagusia, ASLEren Batzar Nagusian izan da.

- **2008ko apirilaren 28 eta 29a. Donostia-San Sebastián. Bilbo. Zamudio**

Valoniako EGABren ordezkariaren bisita. Marc Becker lehendakaria buru izan da. Lehenengo egunean Valoniako ordezkariak Lehendakariarekin, Idazkari Nagusiarekin eta gure EGABren zenbait batzordekiderekin bildu zen INASMETen egoitzan, zentro teknologikoa bisitatzeko bilera aprobetxatuz. Aurretik, ordezkariak Adegiren egoitzan bildu zen. Bigarren egunean Idazkari Nagusia Valoniako bisitariarekin batera Zamudioko Parke Teknologikora hurbildu zen.

Eusko Jaurlaritzako eta SPRIko ordezkariak Valoniako ordezkariarekin azaldu zioten EAeko eboluzio ekonomikoa azken urteetan, baita bestelako alderdi interesgarriak ere, hala nola euskal industriaren internazionalizazioa edo Klusterren politika.

Valoniako EGABren ordezkariak Inasmet eta Miramongo parke teknologikoa bisitatu zuen. Lehendakariaren eta Idazkari Nagusiaren laguntza izan zuten.

- **2008ko maiatzaren 13, 14 eta 15a. Brusela**

Lehendakariak Europako EGAB bisitatu zuen Eskualdeetako EGABren gaiari aurre egiteko.

- **2008ko maiatzaren 20a. Bilbo**
Idazkari Nagusia CEBEK erakundearen Batzar Nagusian izan da.
- **2008ko maiatzaren 22a. Bilbo**
Idazkari Nagusia Ana Aguirre Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren konferentzian izan da Europako Forumean.
- **2008ko maiatzaren 23a. Barakaldo**
Lehendakaria eta Idazkari Nagusia LAB sindikatuaren Kongresuan izan dira.
- **2008ko ekainaren 12 eta 13a. Bilbo**
Bilboko Euskalduna jauregian Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak (CESE) Euskadiko EGABren lankidetzarekin antolatutako entzunaldia egin da honako izenburuarekin: "Hiri-ingurunearen eboluzio orekatuaren alde. Erronkak eta aukerak". Entzunaldia Europako EGABk Europako Elkartearen etorkizuneko hiri-politikei buruz arakatze-irizpena egitearen esparruan egin da. Gure EGABren lehendakaria eta idazkari nagusia izan dira, baita zenbait batzordekide ere, Europako EGABren ordezkaritza zabalaz gain.
- **2008ko ekainaren 24a. Gasteiz**
Presidentea Lehendakariarekin bildu da.
- **2008ko uztailaren 10 eta 11. Santander**
Idazkari Nagusia Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatean (UIMP) udako ikastaroan izan da. Erreinuko EGABk antolatu du eta 2007. urteko Espainiako egoera sozio-ekonomikoaren eta lan-egoeraren txostena aurkeztu da.
- **2008ko uztailaren 17a. Bilbo**
Idazkari Nagusia Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiaren fundazioaren 25. urteurrenaren ospakizun-ekitaldian izan da Euskalduna jauregian.
- **2008ko irailaren 3, 4 eta 5a. Donostia**
Idazkari Nagusia Euskadiko eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioak antolatutako ikastaroan izan da. Izenburua: "XXI. mendeko globalizazioa". EHUko udaleko ikastaroen barruan egin da.

- **2008ko urriaren 1 eta 2a. Baiona-Frantzia**

CRPMren Batzar Nagusia. José Luis Ruiz García, abuztutik EGABren lehendakari berria, bertan izan da.

- **2008ko urriaren 7a. Gasteiz**

Jose Maria Arzaki lehendakariak Euskaldun unibertsalaren saria entregatzea. Lehendakaria izan da.

- **2008ko urriaren 15, 16 eta 17a. Baiona (Galizia)**

Autonomia erkidegoetako EGABren Lehendakarien eta Idazkari Nagusien topaketa. Topaketan lehendakaria izan da. EGABren lanetan adostasuna bilatzeari buruzko gaiak landu dira, baita C taldearen konposizioa eta topaketan egitura bera ere.

- **2008ko azaroaren 5 ,6 eta 7a. Rennes**

RTAren orientabide-batzordearen bilera. Lehendakariak Euskadiko EGABren ikerketa aurkeztu du garapen iraunkorraren plana egiteko metodologiari buruz.

- **2008ko azaroaren 10a. Gasteiz**

Lehendakaria Euskal Legebiltzarreko Lehendakariarekin bildu da 2007ko Euskadiko txosten sozio-ekonomikoa eta diru-sarrerak bermatzeko lege-proiektuari buruzko irizpena aurkezteko.



Legebiltzarreko
presidente
Izaskun Bilbao
Euskadiko
EGABeko
presidente José
Luis Ruizi harrera
egiten

- **2008ko azaroaren 10a. Bilbo**
Lehendakaria enpresetan hizkuntza-kudeaketaren kalitateari Bikain ziurtagiriaren entregan izan da.
- **2008ko azaroaren 14a. Bilbo**
Lehendakaria CCOO Irakaskuntzaren kongresuan izan da.
- **2008ko azaroaren 14a. Leioa**
EHUko Lan Harremanen Eskolan "Egungo krisiaren lan-ondorioei" buruzko hitzaldia. Lehendakaria eta Idazkari Nagusia izan dira.
- **2008ko azaroaren 17 eta 18a. Bilbo**
Euskadi-Akitania Plataforma logistikoaren bilera Euskalduna jauregian. Lehendakaria izan da.
- **2008ko azaroaren 19a. Bilbo**
Confebask enpresaburuen elkartearen eratu zenetik 25 urte pasa dira eta urteurrena ospatzeko Erregea izan da Euskalduna jauregian. Lehendakaria eta Idazkari Nagusia izan dira.
- **2008ko azaroaren 21a. Bilbo**
Bilboko Merkataritza Ganberaren ostiraletako hitzaldia: "Espainiako ekonomia krisi finantzario orokorraren aurrean". Idazkari Nagusia izan da.
- **2008ko azaroaren 24a. Bilbo**
Emakumezkoen indarkeriaren kontrako eguna dela-eta, Lehendakaria Gizonduzen "Euskal gizonezkoak emakumezkoen indarkeriaren kontra" ekitaldian izan da Arte Ederren Museon.
- **2008ko azaroaren 27a. Bilbo**
Lehendakaria eta Idazkari Nagusia Carlton hotelean gizarte-ekonomiaren Txemi Cantera nazioarteko sarietan izan dira. ASLEk antolatu ditu.
- **2008ko abenduaren 1a. Bilbo**
Euskadiko EGABren lehendakaria osasunaren politika publikoak mahainguruaren buru eta moderatzaile izan da. Gaiari buruzko jardunaldiak CCOOren sektoreko Federazioak antolatu ditu.

- **2008ko abenduaren 3a. Gasteiz**

Eusko Jaurlaritzak antolatuta, "Ekonomiaren Euskal Behatokiaren" bileran parte hartu dute Lehendakariak eta Idazkari Nagusiak.

- **2008ko abenduaren 12a. Bilbo**

Lan Ekintzaren plan estrategikoa aurkeztea: Nola aurre egin krisiari Bilbon? Lehendakariak jardunaldia irekitzeko esku hartu du.



Euskadiko EGABeko presidente José Luis Ruizek Lan Ekintza Bilbao-ren Plan Estrategikoaren aurkezpenean parte hartu zuen

- **2008ko abenduaren 17a. Bilbo**

Lehendakaria RTAri ordezkatuz Arku Atlantikoaren Batzordearen garraioari buruzko lan-taldearen bileran izan da.

- **2008ko abenduaren 19a. Gasteiz**

Lehendakariaren harrera euskal gizartearen ordezkariari. Lehendakaria izan da EGABri ordezkatzen.

KANPOKO KOOPERAZIOA EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEKIN ETA BESTELAKO EUROPAKO ERAKUNDEEKIN

AKITANIAKO EEGAB-REKIN ALDI BIEN ARTEKO KOOPERAZIOA

Euskadiko EGABk bi aldeen arteko kooperazio-harremana du Conseil Economique et Social Régional d'Aquitainerekin eta horri esker elkarrizketa etengabea mantentzen du eta EAEn eta Akitanian interes komuna duten gaiei buruz ikuspegi partekatua garatzen da. 2004. urtean sortu zen lehenengo lan-batzordea eta Euskadiko EGABren ordezkariak eta Akitaniako EEGABren eskualdeen arteko kooperazio-taldeak osatu zuten. Helburua Akitaniaren eta EAEn artean hurbiltasuneko turismoa bultzatzeko aukerak aztertzea zen. Iraunkortasunaren irizpideak errespetatu behar zituen; ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-betekizunak integratzeko gai izan behar zuen eta, gainera, EAEn eta Akitaniaren artean eskaintza turistikoa bateratua egituratu nahi zen beste merkatuei begira.

Lan horiek amaitutakoan eta bi eskualdeetako agintariak, erakunde-eragileak eta eragile sozio-ekonomikoei nahiz prentsari ondorioak eta gomendioak aurkeztu zitzaizkienean, 2007. urtean bi batzordeak jardura berriei ekin zieten batera alde bien arteko kooperazioaren harremanaren esparruan eta gure bi eskualdeen artean ondasunak eta pertsonak zirkulatzeko EAEn eta Akitaniaren artean garraioaren arloan dauden oztopoei buruzko lana hasi zuten, konponbide- eta hobekuntza-proposamenak formulatzeko xedez. Moduen arabera, garraio-fluxuak, egungoak eta etorkizunekoak, bi eskualdeetako garraio-eskaintza, eskualdeetako, estatueta eta EEko garraio-politikak aztertuko ditu, lineei, zerbitzuei, azpiegiturei elkarren arteko operatibotasunari eta intermodalitateari dagokienez, arazoak identifikatuko dira eta identifikatutako problematiken erabaki-proposamenak definituko dira.

Euskadiko EGABren Lan Taldean izandako barruko bilerez gain, 2008. urtean lan-batzordearen hiru bilera bateratu izan dira Euskadiko EGABren eta Akitaniako EEGABren ordezkarien artean.

- **Pau, 2008ko apirilaren 9 eta 10a**

Bileraren zati handi bat entzunaldiak egitera bideratu zen eta horiei esker aurrera egin zen bidaiarien hurbiltasun-garraioaren arloan. Zerbitzu mugakideak eskaintzen dituzten autobusen enpresetako ordezkarietara entzun zitzairen eta sindikatuek ekarpena egin zuten langile mugakideen joan-etorriari eta sektorearen langileentzat zerbitzuen Europako jarraipen-inplikazioei buruz. Azkenekoa EGABren Mendebaldeko Pirinioetako CSIR izenekoaren Lehendakariaren ekarpena izan zen. Entzunaldiak amaitzeko, Pau-Bearneko Merkataritza eta Industria Ganberaren Lehendakariak, bileraren buruak, Pau-Bearneko aireportuaren eta low-costen problematikoari buruzko aurkezpena egin zuen.

Bestetik, garraio-fluxuen datuei eboluzioaren ikuspegia eman behar zitzairen joerak ondorioztatzeko, bai epe laburrean, bai epe ertainean, bai epe luzean. Gainera, eskualdeko, nazioko eta Europako garraio-politiken multzoa aztertzeko aukera zegoen horien artean joerak alderatuz.

Bileraren bezperan Turbomeca enpresa bisitatu zen Tarnosen.

- **Bilbo, 2008ko uztailaren 7 eta 8a**

Uztailaren 7ko arratsaldean Bilboko Portua bisitatu zen eta, horretarako, portu-agintaritzaren egoitzan aurkezpena egin zen; ondoren, instalazioak eta terminalak bisitatu ziren.

Portu-jardunaldia osatzeko, 8an short sea shipping gaiari buruz aurkezpen orokorra izan zen UNIPORTEko Inmaculada Ugarteche andreaken eskutik; beste hitzaldia, berriz, Bilbo-Zeebrugge Itsasoko Autopistari buruzkoa izan zen eta Ignacio Cavero de Transfennica jaunak hitz egin zuen.

Beste saioak EAEren eta Akitaniaren arteko bidaiarien hurbiltasun-garraiara bideratu ziren eta modu eta zerbitzu bakoitzaren egoerari buruz hausnarketa sakona egin zen. TOPO tren-zerbitzu mugakideari eta Eurohirian Baionaraino tren-zerbitzua jartzeko dauden planei buruz Euskotreneko Mikel Beitia jaunak aurkezpena egin zuen.

- **Baiona, 2008ko azaroaren 20 eta 21a**

Topaketan Mouguerreko Merkantzien Europako Zentroa bisitatu zen; Europako tren-trafikoaren kargak puskatzeko zentro garrantzitsua da. Halaber, RFFren (Reseau Ferroviaire de France) ordezkarien eskutik Frantzian trenaren arloan dauden proiektuak ezagutu ziren.

21ean egindako saioan hurbiltasun-errepidez egindako merkantzia-garraioari buruz informazioa jaso zen eta errepide-garraioko bi Frantziako konpainien entzunaldiak izan ziren. Beren lana Mouguerre eta mugaren beste aldearen arteko garraioa eta Akitania eta EAEko eskualdeen arteko garraioa egitea da. Era berean, Euskadiko EGABk bi batzordeek EAEn eta Akitaniaren artean hurbiltasun-garraioa hobetzeko proposamen eta gomendioen dokumentuaren proiektua aurkeztu zuen. Zabal eztabaidatu zen eta hurrengo bileran onartua izango da.

2007-2013RAKO FRANTZIA-ESPAINIA-ANDORRA LURRALDE-KOOPERAZIOAREN PROGRAMA, INTERREG IV A, MUGAZ HARAINDIKOA.

Euskadiko EGAB 2007-2013rako Frantzia-Espainia-Andorra Kooperazio Programaren Jarraipen Batzordearen kide da, 2007-2013rako Espainia-Frantzia-Andorra mugaz haraindiko eremuan Lurralde Kooperazioaren Programa Operatiboan eta Jarraipen Batzordearen Barruko Araudian xedatutakoaren babesean. Berariaz hizpatzen dute kontsulta-erakunde bezala Euskadiko, Nafarroako, Aragoiko, Kataluniako, Errioxako, Akitaniako, Midi-Pyrénéeseko eta Languedoc-Roussilloneko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeek parte hartzea. Gainera, batzorde hori osatzen dute Pirinioetako Lan Komunitateak Kudeaketa Agintaritza bezala, Europako Batzordeak kontsulta-modura, Frantziako eta Espainiako agintarien ordezkariak paritarioak (honakoak sartzen dira: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Aragoi, Katalunia eta Errioxa, Estatuko Administrazio Orokorra eta Ingurumen Agintarien Sarea; Frantziaren aldetik: Akitania, Midi-Pyrénées, y Languedoc-Roussilloneko Eskualde Batzordeak, eskualdeko prefekturak, Ariège, Haute-Garonne, Hautes-Pyrénées, Pyrénées-Atlantiques eta Pyrénées-Orientaleseko batzorde orokorrak eta departamentu-prefekturak, ingurumen-agintaritza Commissariat de Massif à l'Aménagement des Pyrénées izenekoa). Bere funtzioak nagusiki programaren helburuak lortzen al diren aztertzea da; gainera, aurkeztu eta batera finantzatzen diren proiektuak hautatzeko

irizpideak ikertu eta onartzen dira, baita betetzearen emaitzak aztertu eta programa berraztertze proposamena egin ere.

Euskadiko EGABk hurrengo bileretan parte hartu du:

- **Jaca, 2008ko urtarrilaren 31**

Programaren Jarraipen Batzordea eratzeko bilera. Era berean, barneko araudia onartu da eta partaidetza-irizpide eta proiektuen hautespenari buruz lehenengo eztabaida izan da.

- **Montpellier, 2008ko apirilaren 3a**

Jarraipen Batzordearen bilera, 2007-2013rako Programaren proiektuen lehenengo deialdia irekia onartzen duena. Halaber, hautespen-irizpideak eta zerikusia duen dokumentazioa onartu da, baita programaren komunikazio-plana ere.

- **Montpellier, 2008ko apirilaren 4a**

Programa merkaturatzeko mintegia. Deialdiaren edukiak hedatu dira, hauta daitezkeen jarduerak zehaztu eta partaidetza-baldintzak xedatu ere bai. 1.000 interesatu izan dira.

SARE TRANSNAZIONAL ATLANTIKOA. RTA/JATN

Euskadiko EGAB Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen eta Espazio Atlantiko eskualdeetako antzeko erakundeen Plataformaren kidea da. Horri Sare Transnazional Atlantikoa deritza. Eskualdeen arteko kooperazio-proiektuak eta –politikak proposatzea du helburu eskualde atlantikoetako lehiakortasuna eta gizarte- eta lurralde-kohesioa sendotzeko. Halaber, atlantikoan kokatzen diren interes komuneko gaiak aztertu eta analizatzen dira, ondoren, zabaldu eta erabakitzen dutenei iritsarazteko, bereziki, Europako Elkarteari. Era berean, Sarearen barruan honako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak sartuak daude: Kantabria, Galizia, Kanariak, Ceuta, Akitania, Poitou-Charentes, Britainia, Pays-de-la-Loire, Britainia, Limousin eta Erdiko Eskualdea; horrez gain, Galeseko Herrialdeko Eztabaida-gune Ekonomikoak, Lisboako Eskualdeko Enpresa Elkartea, AERLIS, Soldadura Institutua eta Qualidade, ISQ, eta Algarveko Sindikatuen Elkartea, USALGARVE/CGTP-IN.

2003-2006 denboraldia RTAk FEDERen finantzazioa izan zuen INTERREG IIIB Espazio Atlantikoa Ekimen Komunitarioaren bidez eta hurrengo gaien inguruan lan egin zuen:

- > Intermodalitatea merkantzien garraioan, itsas garraiorantz, bideratua, portuak eta hinterland izenekoak eta kabotajea Espazio Atlantikoan.
- > Segurtasuna merkantzien itsas garraioan.
- > Espazio Atlantikoaren eskualdeetan ikerketa, berrikuntza eta teknologia-transferentzia.

INTERREG IIIBren indarraldia eta beste babesean zehaztutako jarduera-programa amaitu zenean, RTAk etorkizunari buruzko hausnarketa egin zuen. Ildo horri jarraiki, RTAk ibilbidearekin jarraitu du antolaketa-egitura sinplifikatuaren bidez; kideek, beren bitarteko materialetatik eta giza baliabideetatik abiatuta, lehen koordinazio-organoak egiten zituen zereginak onartu dituzte eta 2007-2013 programazio-denboraldirako programa komunitarioak abian jarri arte finantzazioa kideen erakundeek dituzten bitartekoen araberakoa izango da.

Xede horrez, RTAren Antolaketa Gutunari dagozkion aldaketak sartu dira.

Lan-gai bezala itsas energia berriztagarriak hautatu dira; bere potentziala oso-osorik garatzeko zailtasun sozio-ekonomikoak eta juridiko-administratiboak landuko dira. halaber itsas bioteknologia garatuko da, farmazian, elikaduran eta kosmetikan, besteak beste, aplikatzeko.

2008. urtean RTAren gobernu-funtzioak hurrengo pertsonak gauzatu dituzte:

Lehendakaritza: Alain EVEN, Britainiako EEGAB

1. lehendakariordetza: Pablo COTO, Kantabriako EGAB

2. lehendakariordetza: Joao Paulo DUARTE, Lisboako ISQ

RTA-REN BILERAK 2008. URTEAN

RTAren erabakitze-organo gorenak, Batzorde Eragilea, Bureaua, Osoko Bilkura, Orientabide Batzordeak bilerak izan ditu:

- **Donostia, 2008ko martxoaren 20a**

RTAren Bureauaren bilera.

Bureauak hurrengo orientabide-batzordearen prestaketari aurre egin zion.

- **Santander, 2008ko apirilaren 23a**

Orientabide Batzordearen bilera

RTAren erabakitze eta orientabide estrategikoaren organo gorenak onartu zuen Asturiasko EGAB erakunde honi atxikitzea eta EGAB bakoitzak RTAren Antolaketaren Gutunean alde zuzenetik berretsitako aldaketak egin zituen.

Arku Atlantikoa Batzordearen jarduerarekin RTAren jarduerak egituratzeari buruz eztabaidatu zuen eta itsas energia berriztagarriari buruz lan-taldea eratzea onartu zuen. Kantauriko EGABk onartu zuen lehendakaritza eta Euskadiko EGABk eta Poitou-Charentesko EGABk lehendakariordetza.

Karguak ordezkatu ziren: Lisboako ISQko Joao Paulo Duarte RTAren lehendakaritza utzi zuen eta 1. lehendakariordeak, Britainiako EGABko Alain Evenek, hartu zuen. 1. lehendakariordearen kargua Kantabriako EGABko Pablo Cotok hartu zuen eta bigarren lehendakariordetza Joao Paulo Duarte lehendakari ohiak.

- **Rennes, 2008ko azaroaren 6a**

Orientabide Batzordearen bilera

Batzorde kideen ordezkari nagusiek RTAri Basse-Normandie eskualdeko EGAB atxikitzea onartu zuten. Arku Atlantikoa Batzordearen Lan Taldean RTAk parte hartzea adostu zuten. Metodologia zehaztu zen eta talde bakoitzean kideak modu egonkorrean atxikitzeke gelditu zen. RTAk Arku Atlantikoa Batzordearen Lurralde Kohesioaren eta Garraioen Lan Taldeen eta Koordinazio Batzordearen hurrengo bileretan parte hartzeko orduan, Euskadiko EGABri eskuordetu zitzaion partaidetza.

Itsas energia berriztagarrien lan-taldearen lanen aurrerapena aztertu zen, baita lanaren plana eta egutegia ere. Halaber,

Europako gaien arloan EGAB bakoitzaren eskualdeko agintaritzen estrategiei buruzko informazioa biltzeko Poitou-Charentesko EGABk egindako proposamenaren oinarriak onartu ziren. Hurrengo Orientabide Batzordean eztabaidatzeko zen.

Itsas Energia Berriztagarrien arloan eskualdeen arteko lan-taldeak, apirilean Orientabide Batzordeak eratuak, 2008ko ekainean ekin zien lanei. Itsas bitartekoei dagokienez Espazio Atlantikoak eskaintzen duen aukera aprobetxatzeko, lanen helburua eskualde atlantikoetan itsas energia berriztagarriak garatzeko oztopoak identifikatzea da: oztopo juridikoak, administratiboa, ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Halaber, gaingintzeko gomendioak definitu nahi dira.

Era berean, lan-lerro hori abiapuntua izango da Arku Atlantikoaren Interreg IV programaren barruan 2009. urtean proiektua aurkezteko.

Honako alderdiak aztertu dira:

1. Itsas energia berriztagarrien iturri bakoitzaren abantailen eta eragozpenen balantzea eta Atlantikoan garatzeko aukerak.
2. Itsas Energia Berriztagarrien egungo aukera, bereziki, Espazio atlantikoan; ikuspuntu guztiak aztertzen dira: teknologikoa, politikoak, juridikoa, ekonomiko-finantzarioa, ingurumenekoa eta soziala.
3. Itsas Energia Berriztagarriak garatzeko erronkak eta proposamenak hurrengoak kontuan hartuta:
 - > Teknologia menderatzea
 - > Aldeko lege-testuingurua eta testuinguru politikoa
 - > Integrazio arrakastatsua ehun ekonomikoan
 - > Gizarte-onargarritasuna
 - > Jardueren arteko sinergiak eta osagarritasunak

Euskadiko EGAB ikerketaren txostena egiteko izendatu zuten, Akitaniako EGABrekin batera. Lanak errazteko eta materiala biltzeko, lan-taldearen partaideak 4 ataletan banatu dira:

- > Juridiko-politikoak: Euskadiko EGAB eta Akitaniako EGAB.
- > Teknologikoak: Kantabriako EGAB, Britainiako EGAB eta Lisboako ISQ.
- > Ekonomiko-finantzarioak: Galiziako EGAB eta Pays-de-la-Loireko EGAB.
- > Sozial-ingurumenekoak: Asturiasko EGAB eta Poitou-Charentesko EGAB.

Taldeak 2008. urtean 2 bilera egin ditu: Santanderren ekainean eta Rennesen azaroan; esku hartu duen EGAB bakoitzaren ordezkariak parte hartu dute, baita ikerketaren xede den arloarekin zerikusia duten adituek ere.

Euskadiko EGABren ordezkariak Lan Taldean honakoak dute:

Titularra: Arantza López de Munain Zulueta, RTAren koordinatzailea.

Adituak: Ignacio Barrenechea eta Roberto Bermejo, biek IV. taldean batzordekideak.

- **RTAren mintegia. Rennesen 2008ko azaroaren 6 eta 7an**

RTA 2008. urtean "RTAren Mintegia" izeneko jarduera inauguratu zuen. RTAren lan-modalitate hori RTAren Antolaketa Gutuna berraztertu zenean sartu zen 2008ko apirilean. Gai bereziei buruz esperientziak trukatzeko eta EGAB desberdinen lanak aurkezteko da.

Lehenengoan mintegia garapen iraunkorrari buruz RTAko EGABen lanak aurkeztera bideratu zen.

Euskadiko EGABren aldetik, bere lehendakariak, Jose Luis Ruiz jaunak Euskadiko EGABren Osoko Bilkurak 2008ko otsailaren 1ean onartutako ikerketa aurkeztu zuen: "Garapen iraunkorra, politika publikoen erronka: EAEn ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-ikuspegiak integratuta, garapen iraunkorraren estrategiaren jarraibideak definitzeko konparaziozko ikerketa".

EUROPAKO ITSAS ESKUALDE PERIFERIKOEN KONFERENTZIA ETA ARKU ATLANTIKOA BATZORDEA

Europako 157 itsas eskualde daude elkartuak eta Europako Elkartearen garapen orekatua sustatzera bideratuta dago eskualde horien aktibo komunei balioa emanez. Halaber, eskualdeak Europako integrazio-prozesuan inplikatzeko lortu nahi da eta Europako agintariei sentsibilizatu nahi zaie itsas eskualdeen eta periferikoen berezitasun eta beharrei buruz Europako integrazioaren testuinguruan. Sei batzorde geografikoetan antolatzen da eta bat Arku Atlantikoa Batzordea da. Legezko kideak dira atxikitako eskualdeetako agintarien ordezkariak eta eskualdeetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak behatzaile bezala joan arren, 2008az gero kooperazio-formulak egituratu dira Arku Atlantikoa Batzordearen eta RTAren artean, eragile atlantiko desberdinen artean sarean lana bultzatzeko. RTA erantsi da Arku Atlantikoa Batzordearen Koordinazio Batzordean eta bere Lan Taldeetan parte hartzeko.

Euskadiko EGABk Arku Atlantikoa Batzordearen Batzar Nagusietan parte hartu zuen Deauvillen ekainaren 12 eta 13an. Bertan Lehendakari berria, Laurent Beauvais jauna, Basse-Normandie eskualdeko lehendakaria, aukeratu zen eta Espazio Atlantikoaren garapen integratuaren dinamikoa berria onartu zen, hain zuzen ere, gainerako eragile atlantikoekin, eragile ekonomikoekin, eragile sozialekin eta RTAekin, besteak beste, sarean lan egitea. Urriaren 1ean bilera Baionan egin zen eta Euskadiko EGABren lehendakariak, Jose Luis Ruiz jaunak eta RTA-n sartuta dauden beste EGABen lehendakariak parte hartu zuten. Hala, RTAren jarduera-programa aurkeztu zen.

Euskadiko EGABk RTA ordezkatzuz parte hartu du Arku Atlantikoa Batzordearen Lurralde Kohesio eta Garraioaren Lan Taldeen eta Koordinazio Batzordearen bileretan. Horiek 2008ko abenduaren 16 eta 17an egin dira. Koordinazioaren Batzordearen esparruan Arku Atlantikoa Batzordearen lanak jarraitzeko eta koordinatzeko orduan lankidetzan jarduteaz gain, Euskadiko EGABk "Lurralde Kohesioa" Lan Taldean parte hartu du eta eskualde atlantikoetako EGABen iritziak azaldu ditu Arku Atlantikoa Batzordeak Lurralde Kohesioari buruz Europako Batzordearen kontsultarako Liburuari egindako ekarpenetan. Garraioaren Lan Taldearen testuinguruan, bileran garraioaren arloan komunitatearen egunerokotasuna landu zen eta, gainera, Interreg IV Espazio Atlantikoaren esparruan kooperazio-proiektuetarako gaiari aurre egin zitzaion. Azkenik, Garraioaren Sare Transeuroparren berraztertzeari buruz Europako Batzordearen kontsultarako Liburu Berdea gutxira argitaratuko

enez, lanak garatu ziren. Arku Atlantikoa Batzordeak gaiari buruz ekarpen sakona egin nahi du eta RTAk nahiz Euskadiko EGABk eraginkortasunez parte hartzeko asmoa dute.

Era berean, Euskadiko EGABk CRPMren Batzar Nagusian parte hartu zuen Baionan urriaren 2 eta 3an.

KOOPERAZIOA EUROPAKO BESTE EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEKIN

Apirilaren 28 eta 29an Euskadiko EGAB Valoniako (Belgika) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ordezkari izan zen. 14 kide etorri ziren eta buru Marc Becker lehendakari jauna izan zen. Topaketa Euskadiko EGABren eta Belgikako eskualdeetako EGABen artean 2003. urtean zehaztutako harremanean kokatzen da eta bere helburua EAeko garapen ekonomiko eta sozialen estrategiak ezagutzea izan zen. Halaber, horiekiko Euskadiko EGABk duen posizioa jakin nahi izan zuten. Bisitan zehar antolatutako topaketetan, Euskadiko EGABren Lehendakaria eta batzordekideak parte hartzeaz gain, Lan Harremanen Kontseiluaren, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Zuzendaritzaren, SPRIren, Euskadiko parke teknologikoen eta zentro teknologikoen ordezkariak izan ziren.

KOOPERAZIOA EUROPAKO EKONOMIA ETA GIZARTE BATZORDEAREKIN

Euskadiko EGABk lankidetzan jardun zuen Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearekin (EEGB) Bilbon entzunaldia egiteko honako titulupean: Hiri-ingurunearen eboluzio orekatuaren alde: Erronkak eta aukerak. 2008ko ekainaren 12 eta 13an egin zen.

Aipatu entzunaldia etorkizunean Elkarteko hiri-politikei buruz arakatzeko irizpena egiteko EEGBren lanen barruan kokatu zen. Lanak egitez arduratu den lan-taldearen lehendakaria, Luis Miguel Pariza jauna, CCOOren aldetik Europako EGBn batzordekidea eta Euskadiko GABren batzordekide ohia, buru izan zen.

12an goizean lan-taldeak eskatutako adituek parte hartu zuten, hala nola Alain Sagnek, Europako Arkitekto Kontseiluaren Idazkari Nagusiak, eta Jürgen Aringek, Kasseleko Unibertsitatean eskualde- eta hiri-garapenaren katedratikoak. Arratsaldean tokiko hizlariak parte hartu zuten eta ikerketa-taldeari Bilboren eta metropoliaren hiri-aldaketarako mugarriak luzatu zizkioten. Bertan izan ziren Ibon

Areso jauna eta Julia Madrazo andrea, Bilboko Udalarari ordezkatzuz;
Angel Nieva jauna, Bilbao Ría 2000 erakundeari ordezkatzuz; eta
Alfonso Cearra jauna, Bilbao Metrópoli 30 erakundeari ordezkatzuz.

Ekainaren 13an ikerketa-taldearen hausnarketarako barruko bilera
egin zen.





The background is a faded photograph of a laboratory or industrial setting. Overlaid on this is a teal rectangular box on the left containing text. On the right side, there are white circular graphics consisting of two overlapping circles, with the letters 'jt' inside the left circle. The entire page is decorated with a complex pattern of thin, white, overlapping circular lines that create a sense of depth and movement.

IV. Kapitulu

BITARTEKO MATERIALEN ETA
GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA



IV

BITARTEKO MATERIALEN ETA GIZA
BALIABIDEEN KUDEAKETA

2008KO AURREKONTUA


2008rako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Gastu Aurrekontuak 2.816.674,92 €-ko hornidura izan zuen; 1.791.959,00€ EAeko Aurrekontu Orokorraren kargura finantzatu ziren, 976.715,92€ aurreko ekitaldietako soberakinen kargura eta 48.000,00 € diru-sarrera finantzarioen kargura.

2008rako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu arrunta hurrengo kapitulu handitan banatu zen:


| | AURREKONTUA | GAUZATUTAKOA | MAILA |
|--|---------------------|---------------------|---------------|
| 2008KO GASTUAK | 2.816.674,92 | 1.576.102,93 | 55,96% |
| I. kapitulua.- Langileen gastuak | 866.803,31 | 642.127,42 | 74,08% |
| II. kapitulua.- Funtzionamenduaren gastuak | 858.908,05 | 634.610,12 | 73,89% |
| III. kapitulua.- Gastu finantzarioak | 60,00 | 0,00 | 0,00% |
| IV. kapitulua.- Transf. eta Diru-lag. Gastu arrunta. Kideen transferentzia | 281.303,56 | 211.195,32 | 75,08% |
| VI. kapitulua.- Inbertsioak | 809.600,00 | 88.170,07 | 10,89% |
| 2008KO DIRU-SARRERAK | 2.816.674,92 | 1.576.102,93 | 55,96% |
| IV. kapitulua.- Transf. eta diru-lag. Gastu arrunta | 1.791.959,00 | 1.791.959,00 | 100,00% |
| Eusko Jaurlaritzza | 1.791.959,00 | 1.791.959,00 | 100,00% |
| V. kapitulua.- Ondarearen diru-sarrerak. Diru-sarrera finantzarioak | 48.000,00 | 86.347,85 | 179,89% |
| Aurreko ekitaldietako etekinak | 976.715,92 | -302.203,92 | -30,94% |

Gastuen kitapenari dagokion eboluzio historikotik ondoriozta daiteke erakundeak aurrera egin duela eta finkatu egin dela. Halaber, hori ondorioztatzeko kontsulta-funtzioari erreparatu behar zaio:

Euskadiko EGABren Gastuaren Gauzatzeari Buruzko Eboluzioa



Euskadiko EGABren Gastuaren Gauzatzeari Buruzko Eboluzioa Kapituluaren Arabera



LANGILEAK BATZORDEAREN ZERBITZURA

Hamaika langile aritu ziren EUSKADIKO EGABren zerbitzura lan-arlo desberdinetan banatuak.

- Ikerketak eta Proiektuak:
Arantza López de Munain
Arantza Unzurrunzaga
Leire Ozerin
- Administrazioa eta Zerbitzuak:
Gabriel Muro
Aitor Crespo
- Dokumentazioa:
Begoña Etxebarria
- Zerbitzu Orokorrak:
Beatriz Cerezo
Ane Torres
- Zuzendaritza Idazkaria:
Arantza Miñambres



EGABen lan
batzarra







V. Kapitula

KOMUNIKAZIO ETA DOKUMENTAZIO
ZERBITZUA KOMUNIKAZIO ETA
DOKUMENTAZIO ZERBITZUA



V

KOMUNIKAZIO ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA

Dokumentazioa

Dokumentazio Zerbitzuak batzordekideek eta Batzordeko langileek eskuratutako oinarritzko dokumentazio-azpiegitura kudeatzea du helburu. Gainera, lanak (irizpenak, memoriak, ikerketak, txostenak...) egiteko dokumentu-bitarteko interesgarriak ezagutu eta lortu behar ditu.

Xede horrez, hurrengo zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Dokumentuak lortzea.
- Dokumentu-funtsa antolatu eta zaintzea.
- Liburutegiko berrien aldizkaria egin eta e-mailez banatzea (astero)
- Aldizkariak zirkulatzea (astero)
- Bibliografia- eta dokumentu-bilaketak neurritan.
- Gai interesgarriei buruz txosten monografikoak egitea.
- Kanpoko buletin elektronikoen espezializatuak banatzea (gobernu-kontseiluaren erabakiak, legebiltzarraren gaurkotatzea, SIIS, etab.).

Gainera, zerbitzu honek jarraipena egiten die EGABk egindako irizpenei eta bakoitzaren kasuan dagokion txostena gauzatzen du.

Argitalpenak

2008. urtean hurrengo aleak argitaratu eta banatu ziren:

- 2007ko Jarduera Txostena. Edizio elebiduna, 750 ale.
- 2007ko Txosten Sozio-ekonomikoa.
 - > Edizio inprimatua gaztelaniaz, 770 ale.
 - > Edizio inprimatua euskaraz, 310 ale.
 - > 2007ko txosten sozio-ekonomikoaren laburpena eta gogoetak. Edizio elebiduna. 400 ale.
 - > 2003-2007 txosten sozio-ekonomikoak biltzen dituen DVDa argitaratzea. Tirada: 1.500 ale.
- 2 irizpen eta 3 txostenen argitalpen elebiduna.
 - > 1etik 7ra bitarteko irizpenak: 800 aleren tirada.
 - > 8tik 12ra bitarteko irizpenak: 600 aleren tirada.
 - > Txostenak: 600 ale.
- Azterlana: Garapen Iraunkorra, politika publikoen erronka. EAE-n ekonomia, gizartea eta ingurumena aintzat hartzen dituen Garapen Iraunkorreko estrategia sortzeko jarraibideen zehaztapenerako konparazio ikerketa. 700 ale.
- Eranskina: Honako ikerketa hau idazteko EGABren laguntzeko dokumentazioa. 700 ale.

Argitalpenak mailingen eta web orriaren bidez banatzen dira.

Hemeroteka

Egunero posta elektronikoz dossier bat zabaltzen da, azpikontratatuta, izaera sozioraboreko berrien aukeraketa eginda.

Prentsako urteko dossierra

Batzordearen jarduerari buruz prentsan, irratian eta telebistan zabaldutako informazio guztia biltzen du. Edukiarekin urtero Euskadiko EGABk komunikabideetan izandako agerpenei buruzko txosten kronologikoa egiten da.

Euskadiko EGAB buletina

2008ko abenduan Euskadiko EGABren bi hilez behingo Informazio Aldizkaria argitaratu zen lehenengoz. EGABren lana hedatzeko tresna bat da eta erakundearen iritzia ahalik eta pertsona gehienei iristeko bitarteko garrantzitsua da. Argitalpenak 2.000 aleren tirada izan zuen eta 2009. urtean bertsio digitala izango du. Berri nagusiak eta abagune-adierazleak agertzen dira, baita Batzordearen jardueraren laburpenak eta Europako kooperazioaren arloan egindako lana ere. Hiru bide erabiliz zabaltzen da: posta arrunta, e-maila eta web orria.

CES VASCO

Boletín informativo trimestral
Noviembre / Diciembre 2008 N.1

EL CES PIDE MEJORAR LAS CONDICIONES DE TRABAJO DEL COLECTIVO DE TEMPOREROS Y DE LAS MUJERES EN EL SECTOR AGRARIO



El Presidente del Consejo Económico y Social Vasco, José Luis Ruiz en Rueda de Prensa.

El Consejo Económico y Social Vasco ha presentado un informe sobre el Proyecto de Ley de Política Agraria y Alimentaria de Euzkadi, elaborado por el Gobierno Vasco. Considera imprescindible para la viabilidad y pervivencia del desarrollo rural que se garantice la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres y pide una mejora en las condiciones del colectivo de trabajadoras y trabajadores temporales.

El CES recomienda potenciar las bolsas de trabajo temporal y elaborar calendarios de las campañas para reducir los desplazamientos de los trabajadores y trabajadoras contratadas en origen y garantizar un mayor número de jornadas trabajadas.

Según resalta este órgano consultivo, se trata de una ley que regula un sector que ejerce una función muy importante en la gestión territorial y medioambiental del territorio, además del papel económico sustancial que representa, como actividad productora de alimentos. Con esta perspectiva, el CES respalda que la norma confiera a la Administración una responsabilidad implícita en la regulación de estas actividades, para que se desarrollen de acuerdo a criterios de sostenibilidad.

Entre las recomendaciones, el Consejo Económico y Social Vasco pide a las administraciones que velen porque se cumpla correctamente uno de los aspectos recogidos en el Proyecto de Ley, relacionado con la igualdad de género. En este sentido, José Luis Ruiz, Presidente del CES Vasco ha recordado que "los principios básicos de igualdad de trato entre agricultoras y agricultores son un elemento imprescindible para la viabilidad y pervivencia del desarrollo rural" y ha abogado por su cumplimiento efectivo.

El responsable del Consejo también ha recordado que el informe elaborado por el órgano consultivo hace hincapié en la situación de otro colectivo, que se considera especialmente vulnerable: el de las y los trabajadores temporales, que tiene una presencia histórica en las campañas de la vendimia en Álava. A este respecto, José Luis Ruiz ha reconocido que "se ha recorrido un importante camino en la dignificación de esta modalidad de trabajo, pero todavía resulta muy necesario insistir y trabajar en la mejora de sus condiciones laborales".

Entre las medidas concretas que el CES propone en el informe destaca la recomendación para que se potencien las bolsas de trabajo temporal y se elaboren calendarios y mapas de las campañas, medidas que contribuirían a "reducir los desplazamientos de los trabajadores y trabajadoras contratadas en origen, de modo que se podrían garantizar un mayor número de jornadas trabajadas, con la consiguiente mejora en la estabilidad del empleo y en la oferta disponible de mano de obra".

Jose Luis Ruiz,
Presidente
del CES Vasco

Tengo el gusto de darle la bienvenida a este nuevo altavoz del CES Vasco. Una nueva herramienta para difundir lo que hacemos y para que nuestra opinión llegue a un mayor número de conciudadanos y conciudadanas.

Se trata de un boletín informativo, de periodicidad bimestral, que contendrá las principales noticias e indicadores de coyuntura, así como resúmenes de la actividad del Consejo y de su labor en materia de cooperación europea.

Queremos que sea una publicación ágil, útil y sencilla. Y que sus datos sirvan para hacernos una comprensión más exacta de las circunstancias del momento, de modo que ayuden a que tomemos las decisiones en un rumbo correcto. Esa es, en definitiva, la misión y la razón de ser del Consejo Económico y Social Vasco.

Euskadiko
EGABen
Bihilabete-
kariaren
lehenengo
zenbakiaren
azala

Web orria

Web orriari atal berri bat erantsi zaio, hain zuzen ere, bi hilez behingo aldizkariari buruzkoa eta argazkiak eguneratu dira.

Euskal EGABen
webaren irudia



Ikusteko artxiboa

Batzordeak egindako ekitaldi eta bilera garrantzitsuenekin argazki digitalen artxiboa du. Argazki horiek puntualki eskaintzen zaizkie aldizkariari eta egunkariari beren lana errazteko.

Euskadiko EGABren jardura komunikabideekin

Batzordean egiten diren lkerketak, Irizpenak eta Txostenak, baita jardura publiko interesgarriak (jardunaldiak, mintegiak, agerraldiak, beste erakundeekin topaketak...) ere komunikabideekin Euskadiko ingurune sozio-ekonomikoko iritzi-buruei bidaltzen zaizkie.

Erabakiak edo irizpenak direnean, Prentsa Oharra egiten da eta komunikabideei bidaltzen zaie. Eduki horiek guztiak Interneten, Euskadiko EGABren web orrian, eskura daude "Notas de Prensa-Prentsa Oharrak" atalaren barruan.

Idatzizko eta ikus-entzunezko komunikabideetan EGAB eta bere jarduerak **150** aldiz izan dira berri.

Hedatu nahi diren edukiei ematen zaien garrantziaren arabera, kazetariak bertara deitzea erabakitzen da. 2008. urtean 4 Prentsaurreko egin ziren eta 7 Prentsa Ohar bidali ziren.

2008. urtean egindako PRENTSAURREKOAK

- **2008ko ekainaren 12a, Bilbo**

Europako EGABk Euskadiko EGABren laguntzaz antolatutako Prentsaurreko / Entzunaldia: "Hiri-ingurunearen eboluzio orekatuaren alde: erronkak eta aukerak". Bertan Euskadiko EGABren lehendakaria, Antxon Lafont, Europako EGABren ikerketa-taldearen lehendakaria, Luis Miguel Pariza, eta ikerketa-taldearen txostengilea, Joost Van Versen, izan ziren.

- **2008ko ekainaren 18a, Bilbo**

2007. urteko erakundearen Jarduera Txostena aurkezteko prentsaurrekoa. Antxon Lafont lehendakaria izan zen.

- **2008ko urriaren 24a, Bilbo**

Euskadiko EGABk egiten duten 2007ko Txosten Sozio-ekonomikoaren datuak aurkezteko prentsaurrekoa. Euskadiko EGABren lehendakariak, José Luis Ruizek, esku hartu zuen.

- **2008ko azaroaren 20a, Bilbo**

Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategiaren aplikazioari buruz Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena aurkezteko prentsaurrekoa. José Luis Ruiz Euskadiko EGABren lehendakariak parte hartu zuen.

PRENTSA-OHARRAK

2008. urtean adierazten diren datetan komunikabideei zazpi prentsa-ohar bidali zitzaizkien EGABren jarduerak eta lanak zabaltzeko:

- **08/02/06**

'Euskadiko Portuen Legearen Aurreproiektuari' buruzko irizpena eta Pertsona Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren II. tituluko VII. kapitulua (pertsona kontsumitzaileen eta

EGABeko
presidente
José Luis Ruiz
komunika-
bideekin



erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak) garatzen duen Dekretuaren proiektuari buruzko irizpena.

• **08/04/03**

Gizarte Zerbitzuen Legearen aurreproiektuari buruzko 03/08 irizpena eta Turismoaren Antolaketaren Legearen Aldaketari buruzko Legearen aurreproiektuari dagokion 04/08 irizpena.

• **08/11/04**

Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra Aldatzeko Legearen aurreproiektuari buruzko irizpena.

• **08/11/10**

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizartean Sartzeko Legearen Aurreproiektuari buruzko irizpena.

• **08/11/26**

Euskadin Nekazaritza eta Elikadura Politikaren Legearen Proiektuari buruzko Txostena.

• **08/12/17**

Laguntza Farmazeutikoaren Antolaketarako Legearen Aurreproiektuari buruzko txostena.

- **08/12/19**

EGABk lehendakariordeari eskatu dio Batzordearen Osoko Bilkuran agertzea eta Eusko Jaurlaritzak krisiaren kontra hartutako erabakiak azaltzea.

José Luis Ruíz
prentsaurrekoan
berbetan



Euskadiko
Gizarte eta
Ekonomia
Arazoetarako
Batzordearen
Osoko Bilkura



Euskadiko
Gizarte eta
Ekonomia
Arazoetarako
Batzordearen
Osoko Bilkura



VI. Kapitulu

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE
ARAZOETARAKO BATZORDEARI
APLIKA DAKIOKEEN LEGERIA



VI

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEARI APLIKA DAKIOKEEN LEGERIA

3/1979 LEGE ORGANIKOA, 1979ko abenduaren 18koa, Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzkoa (306. EAO, 1979-12-22koa) [32. EHAA, 1980-01-12koa]

9/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardearena [141. EHAA, 1997-07-24koa]

1997ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuraren ERABAKIA, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardearen Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena [10. EHAA, 1998-01-16koa]







Eranskin bakarra

2008KO AUDITORIA-TXOSTENA



GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L., inscrita al número 23 en el Registro Especial del Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España y al número 80204 en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, con estudio en Bilbao, calle Diputación nº 1, emite el siguiente:

INFORME DE AUDITORÍA

1. Hemos auditado la liquidación del Presupuesto de la entidad CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA, correspondiente al ejercicio 2008, así como el balance de situación, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto y las notas, del citado Organismo, referidos al 31 de diciembre de 2008. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre los citados estados financieros en su conjunto, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de dichos estados financieros y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

2. Los estados financieros del ejercicio 2008 adjuntos son los primeros que se formulan aplicando el Plan General de Contabilidad de Pequeñas y Medianas Empresas aprobado por el Real Decreto 1515/2007. En este sentido, de acuerdo con lo establecido en el apartado 1 de la Disposición Transitoria Tercera del citado Real Decreto, se han considerado dichos estados financieros como iniciales, por lo que no se incluyen cifras comparativas del ejercicio anterior. En la nota 16 de las adjuntas, titulada "Aspectos derivados de la transición a las nuevas normas contables", se da una explicación de los nuevos criterios contables aplicados, los cuales no han tenido impacto alguno en el patrimonio neto al 1 de enero de 2008, fecha de la transición, y se incorporan como anexo el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio 2007, que fueron formulados aplicando el Plan General de Contabilidad vigente en dicho ejercicio. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a los estados financieros del ejercicio 2008. Con fecha 9 de mayo de 2008 emitimos nuestro informe de auditoría sobre los estados financieros del ejercicio 2007, en el que expresamos una opinión favorable.

3. En nuestra opinión, la liquidación del Presupuesto del ejercicio 2008 adjunta presenta adecuadamente, según criterios presupuestarios, la actividad económica de la entidad CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA durante el citado ejercicio, y el balance de situación, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto y las notas adjuntas, expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y la situación financiera de dicha entidad al 31 de diciembre de 2008, de los resultados de sus operaciones y de los cambios en el patrimonio neto, y contienen la información necesaria y suficiente para su interpretación y comprensión adecuada de conformidad con principios y normas contables generalmente aceptados en la normativa que resulta de aplicación.

GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L.



Fdo.: Javier Angulo Gómez



Bilbao, 17 de abril de 2009



